


EUSKARALDIA

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

2020ko azaroaren 20tik
abenduaren 4ra



¿QUÉ ES
EUSKARALDIA?
Página 23.

ما هو أوسكارالديا؟
الصفحة 24.

O QUE É
EUSKARALDIA?
Página 25.

CE ESTE
EUSKARALDIA?
Pagina 26.

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea, Aiurri eta Tolosaldeko Ataria.

Lege gordailua: SS-1323-2013.

Testuak eta argazkiak: Galtzaundi Euskara Taldea, Aiurri, Tolosaldeko Ataria eta 28 Kanala.

Diseinua: Tolosaldeko Komunikazio Taldea.

Maketazioa: Erroitz Baltzu Mugatua.



**OIHANA IGUARAN***Ahobizia*

“

Euskaraz bizitzeko egin nezakeen ahaleginaren ikuspegia aldatu zidan Euskaraldiaren filosofiak. Esperimentuari esker ulertu nuen euskaraz bizitzeko, besteen hizkuntza aldatzea baino, nirea aldatu beharrik ez izatea zela gakoa. Hori zela abiapuntua. Euskara gehiago entzuteko modua, neronek posible den guztietan egitea zela, alegia.

Gehiago eta gehiagotan egitea lortu nuen horri esker. Eta beraz, gehiago entzutea. Baina ez baitut nire belarrientzat soilik hitz egiten, ez dakizue zer sorpresa ederra zen kalean nindoala *belarriprest* txapa mordoak aurkitzea. Bidean konplize berriak deskubritzea da Euskaraldia. Eta aurren, gehiagorekin konpartituko ditugu *ariguneak*.

”

“

Orain arte euskaldun-berria nintzela esateko ohitura nuen baina aldi berean ez nintzen hitz horrekin identifikatua sentitzen. Orain, askoz identifikatuago sentitzen naiz *belarriprest* hitzarekin, beti bait nago prest parekoa euskaraz entzuteko.

Euskaraz pentsatzen dut, euskara sentitzen dut, baina ez naiz gai esan nahi dudana, nahi dudana moduan erabat euskaraz adierazteko. Bat nator Jorge Oteizaren iritziarekin. Horrela entzun nion behin: “euskaraz ez jakiteagatik, nire gorputzeko atal bat falta zaidala sentitzen dut”. Bestalde, hunkituta eta harro sentitzen naiz nire ondorengoak euskaraz ondo hitz egiten entzutean.

”

**RAFA GORROTXATEGI***Belarripresta*



Ekinaren ekinez, buruz buru nahiz taldean, hizkuntza-ohiturak aldatu

Euskaraldiaren bigarren edizioak *ahobizi* eta *belarriprest* rolen doitzea ekarri du, baita *arigune* deritzon kontzeptu berria ere. Hala, bi lagunen arteko harremana ez ezik, taldeko jarduna ere ariketa sozialaren erdigunean jarri nahi izan da.

Arian-arian finkatzen dira ekimenak, edizioz edizio eta errepikatzearen poderioz, pausoak progresiboki indartuz eta neurriko ekarpenak eginez, aldiko. Lehen urratsak ematen ari den umetxoa da Euskaraldia, artean bigarren urtea ere bete ez duena. Munduratu berria izanik, asko du ikasteko. Asko du probatzeko, ontzeko eta zuzentzeko, baina era berean, baita ezin eskuzabalago emateko ere, baldin eta bere eginkizunari tinko eusten badio; baldin eta, hizkuntza-ohiturak modu kolektiboan aldatu nahi horretan, tokian tokiko testuinguruan txertatzen asmatuko badu, Euskal Herriko bazter eta arlo guztietara hedatzeko sortu zenez.

Helburuak eta oinarriek bere horretan darraite bigarren edizio honetan: hiztunen arteko harremana erdigunera ekarririk, *belarriprest* eta *ahobizi* rolen praktikak errotu nahi dira, eta horrez gain, herri batzordeak indartu, lankidetza areagotu. Hasieran ezarritako ezaugarrien doitzeak, izatekotan, herritarrek hautatu behar dituzten bi rol horiei egin zaizkie. Edo hobeki esan, rolen gaineko pertzepzioari.

Uste zabalduenaren arabera, euskaraz ongi egiteko gauza denari automatikoki jarri izan baitzaio *ahobizi* txapa. Alabaina, ekimenak jasotzen duen bezala, kontua ez da “norberak zenbat dakien, egunerokoan zer egingo duen baizik”. Bestela esanda, gakoa jarrera da, portaera da, Euskaraldiak beteko dituen hamabost egunetan hartuko den konpromisoa, ez gaitasuna.

Denak *belarriprest*

Parte-hartzaile guztiak dira *belarriprest* ezinbestean. Hasteko eta behin, ulertzea ezinbesteko baldintza delako Euskaraldiak jokatu nahi lukeen partidan, eta gutxieneko langa ere badelako, edozein hizkuntza komunitatetan. *Belarriprest* horietarik batzuei, berriz, konpromiso markatuagoa hartuko dutelako, ariketari hedadura nabariagoa emango diotelako, ohiko hizkun-

“Gakoa jarrera da. Euskaraldiak iraungo duen hamabost egunetan hartuko den konpromisoa, ez gaitasuna”

tza jokaerak astindu, erosotasuna urratu, nagia atera eta bideak zabalduko dituztelako, *ahobizi* izena hartuko dute.

Ahobiziari ausart jokatzeko adorea estimatzen zaio, euskararen erabilaren optimizazioa bururaino eramateko erronka bereganatzen baitu, ariketak irauten duen tarte mugatuan: ulertzen dutenei uneoro egingo die euskaraz, eta modu berean zuzenduko dizkie lehen hitzak ezezagunei. Horrez gain, solaskideak euskaraz egiten ez dionean eutsi egin beharko dio, eta hitz egiteko gaitasun mugatua dutenekin pazientziatzat jokatu, hizkera moldatu eta komunikazioa erraztu, erdarara lerratzeko joeraren aurrean amore eman gabe. Euskararen erabilera aurrera daraman motorra da *ahobizia*.

Euskararen konpasean, elkarrekin dantzan

Ahobizien eta *belarripresten* arteko interakzioa dantza baten antzean defini liteke. *Ahobiziaren* jokaera urratzailea da, pausoa eta mugimendua markatzen ditu. *Belarriprestarena*, berriz, jarraitzailea da, besteak daraman bideari segitzen dio. Elkarren beharra dute (bestela ez baitago dantzarik), eta elkar elikatzen dute.

Onurak argiak dira. *Ahobiziek*, beste *ahobiziz* eta *belarriprestez* inguraturik daudela, erraz eusten diote beren misioari. Egoerak ez die aparteko ahaleginik eskatzen. Badakite inguruan dauden guztiek ulertzen dutela. Badakite, haien jokaera eta grina ongi ikusita daudela, balioetsi egiten direla, zilegitasun osoa dutela. *Belarriprestak*, *ahobiziek*in harremanetan, kutsatu egiten dira, motibazioak maila bat gora egingo die, euskaraz egiteko premia naturalki ernatzen zaie. Definizioak bilatzen hasita, hizkuntza simetriarako joera esaten zaio horri, eta mekanismo sozio-afektibo unibertsala da: erosoago sentitzen omen gara hiztunok, hizkuntza berean hitz egiten dugunean.

Belarriprestari, hortaz, hizkuntz simetriara jotzeko grina sortzen dio jardunak. Batzuek besteek baino gehiago egingo dute euskaraz, mintzatzeko gaitasunaren arabera betiere, baina gehienek handitu egingo dute euskararen erabilera. *Belarriprest* askok, batik bat gaitasun handikoek, elkarriketak euskaraz abiatzeko ekimena hartuko dute, eta *ahobizi* bailiran jokatu dute, inork eskatu gabe. Halaxe jartzen da abian euskararen erabilaren zikloa. Jokamolde horrek denboran irautea da gakoa. Horri eusteak finkatzen du hizkuntza-ohitura berria.

Buruz burukoak bai, taldeak ere bai

2018ko Euskaraldiak norbanakoen arteko aurrez aurreko ahozko elkarriketetan eragiteko gonbita luzatu zuen. Aurtengo edizioa bestelako elkarriketetara eta harremanetara zabalduko da, eta euskaraz aritzeko aukera

ematen duten gune, egoera eta espazioak identifikatzera eramango ditu hiztunak, toki horietan ere, ohiturak aldatzeko hazia erein dezaten. Ezin baita albora utzi egunero ordu luzeak ematen direla espazio handiagoetan, esate baterako lantokietan, edota bestelako multzotan. Ariketa espazio kolektibora eramateko asmoa *arigunea* deituriko kontzeptuaz lagunduta dator.

Ariguneak, hortaz, euskaraz lasai aritzeko gune, espazio eta taldeak izango dira, eta aurrez identifikatzea, kide guztien adostasuna lortzea eta elkarrekin euskaraz jarduteko modua bilatzea eskatzen da, lehenik eta behin. Aurten bereziki, entitateen babespean sortutakoei jarriko zaie fokua. Kasu horietan, entitateak berak funtzio garrantzitsua izango du: euskaraz aritzeko aukera ematen duten gune horiek babestea, zilegitasuna ematea, akuilatzea, ikusgarri egitea. Era guztietako entitateei erreparatuko zaie. Alegia, administrazio publiko, merkataritza zentro, gizarte mugimendu antolatua, saltoki, kirol talde, enpresa nahiz elkarte orori.

Pandemiaren ondorioz aurtengo edizioa bitxia izanagatik ere, datozen urteei begira, euskarazko *ariguneak* sortzen, identifikatzen eta zabaltzen joatea da erronka.

Kultura soziolinguistiko berria

Honenbestez, kultura soziolinguistiko berria dakar Euskaraldiak. Praktika jakin batzuk ez ezik, pentsamolde lerro bat ere badu, zenbait mezu motzen bidez laburbil litekeena. Hasteko eta behin, hizkuntza-ohiturak aldatzea oso zaila dela dioen ustea desaktibatu behar da. Horren ordez, hizkuntza-ohiturak aldatzeko baldintza sozialak hartu behar dira ahotan. Bestalde, euskaraz egin nahi duenak ele biko elkarriketeki eusteko prest egon beharko du. Halaber, ulermen unibertsalaren beharra ezarri beharko litzateke lehentasuntzat eta ezezagunei lehen hitzak euskaraz egiteak ohikoa izan beharko luke. Gainera, euskaldunek euskaldun hartzaillei euskaraz egitea praktika arrunt bihurtu beharko litzateke. Azkenik, helduek dute haur eta gazteen eredu izatearen ardura, baita hizkuntzari dagokionez ere. Norberak egiten ez duena ezin besteei eskatu.

Aipagarri, azkenik, aldibereko komunikazio modu guztiak direla aintzat hartzen direnak, eta horren baitan dago eremu digitaleko jarduna ere, bereziki Whatsapp, Skype, antzeko aplikazioek eta sare sozialek ahalbidetzen dutena.

“Euskaldunek euskaldun hartzaillei euskaraz egitea praktika arrunt bihurtu beharko litzateke”



Arigunea

ariketa arintzeko

Norbanakoak dira Euskaraldiak proposatzen digun ariketa sozialaren oinarria; aurreko edizioan bezala *ahobizi* eta *belarriprest* roletan. Norbanakoek, ordea, beste pertsonekin partekatzen dituzten zenbait gunetan euskaraz «lasai» jarduteko aukera dutela bermatuko die aurtengo edizioak parte-hartzaileei. Barne eta kanpo *ariguneak* dira.

Urrats bat aurrera egingo du aurten Euskaraldiak. Ariketa soziala oraindik ere gehiago fintzeko, *ariguneak* sortuko dira azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Euskaraz lasai hitz egiteko modua jartzen duten lekuak dira *ariguneak*, bermatzen dutenak partaide guztiek ulertu behintzat egiten dutela euskara, eta, beraz, arazorik ez dela sortuko euskaraz egiteagatik.

Euskaraldian, *ahobizi* eta *belarriprest* izango direnek hartutako konpromisoa betetzen laguntzeko tresna izango dira *ariguneak* Imanol Artola, Galtzaundiko dinamizatzaileak argitu duenez: «Aurreko Euskaraldiak ariketa egiteko une batzuk zehazten zituen, baina oraingo honek zehaztaperen gehiago dakartza. Bi norbanakoen arteko elkarrekintzetarako zegoen gehienbat pentsatuta ariketa 2018an, baina okasio gutxitan egoten gara soilik pertsona batekin elkarrekintzan. Normalean, talde zabalagoetan aritzen gara solasean, eta euskaraz aritzeko gune edo espazio horiek identifikatzeko ahalegina da *arigunea*».

Dagoeneko egituratuta dauden talde homogeneousetan jarriko da arreta *ariguneak* izendatzerakoan. Beti kide berdinek partekatzen dituzten guneak izango dira, iraunkorrak. Adibideak eman ditu Artolak: «*Arigune* izenda daiteke enpresa bateko sekzio bat, ikastaro bat, kirol elkarte baten entrenamendu bat edota hamabostean behin txaranga batek egiten duen entsegu. Ez ditugu talde informalak kontuan hartuko, familia edo lagunarteetan kideak aldiro alda daitezkeelako, eta baita hizkuntza baldintzak ere». Gune hauek sortzeko oinarritzko baldintzen berri ere eman dute Euskaraldiko bultzatzaileek: espazio horretan biltzen diren guztiek euskara ulertzea eta adostasun zabal bat egotea, talde horretan euskaraz egin nahi duenari euskaraz egiten uzteko.

Euskaraldiaren antolakuntzatik *arigunea* osatzeko asmoa dutenei baldintza bat ere gehitu diete, «gune horretan biltzen direnen %80ak hizkuntza ohiturak aldatzeko kon-

promisoa hartzea, alegia, hamarretik zortzik, *ahobizi* edo *belarriprest* modura aurtengo Euskaraldian parte hartuko dutela adieraztea». Euskaraldian burutuko den ariketa, norbanakoek egin beharko dutela gogorarazi dute antolatzaileek. «Entitate bakoitzaren barruan sortuko dira *ariguneak*, bat baino gehiago seguruena, baina sortzen ez badira ere, horrek ez du esan nahi gure konpromisoari eutsi behar ez diogunik».

Barne eta kanpo *ariguneak*

Entitate bakoitzaren barruan *arigune* bat baino gehiago sor daitezke eta norbanako batek *arigune* batean baino gehiagotan parte har dezake. Hala ere, Artolaren esanetan, helburua ez da ahalik eta *arigune* gehien sortzea: «Ariketa errazteko tresna bat da, *ahobizi* eta *belarriprestek* jakin dezaten gune horretan euskaraz lasai aritu daitezkeela. *Arigunea* espazio horiek identifikatzeko erreminta da, baina aldi berean, egiteko falta zaigun bidearen erakusle izan daiteke, kontura gaitezen zenbat gune dauden oraindik gure erakundeetan, zeintzuetan ezin gaitezkeen euskaraz lasai aritu».

2018ko Euskaraldian entitateak sustatzaile izan ziren eta enpresa handien kasuan txapak banatzeko ardura ere hartu zuten. Artolak Euskaraldiaren osteko eztabaida taldeetan jasotako hiru testigantzetan jarri du arreta, eta pertsona horiek euren lantokietan hizkuntza ohiturak aldatzeko orduan, enpresaren aldeotasuna erabakigarria izan zela nabarmendu zutela aipatu du. «Kualitatiboki» esangura berezia duten testigantzak dira Galtzaundiko dinamizatzailearen ustetan, aldeko giro sozial batek «nabarmen» eragin baitezake ohitura aldaketan.

Barne *ariguneekin* batera, *ahobiziak* eta *belarriprestek* kide ez diren entitateetara gerturatzerakoan euskaraz aritzeko gune «seguruak» ere bereiziko dira aurten: kanpo *ariguneak*. «Izan daitezke saltokiak, komertzio edo ostalaritza establezimenduak, enpresak edota administrazio



publikoa. Espazio batek, kanpo *arigunearen* identifikagarria izan dezan, entitate horrek bermatu beharko du, uneoro, gutxienez *belarriprest* bat egongo dela bertan, Euskaraldian parte hartzen ari denarekin aritzeko». Kasu honetan ere, entitateak erabakiko du kanpo harremanetarako dituen gune guztiak edo bakar batzuk izendatuko dituen *arigune* gisa. Adibidearekin dator berriro Artola: «Saltoki handi batek erabaki dezake, adibidez, ordaintzeko sei kutxatatik bitan jartzea *arigunearen* identifikagarria. Bezeroak jakingo du bi kutxa horietan, gutxienez, *belarriprest* bat izango duela harremanetarako, eta ondorioz, euskaraz lasai aritu ahal izango dela bertan».

Arrakasta

Aurtengo Euskaraldian izena emateko nahikoa izan da barne edo kanpo *arigune* bakar bat identifikatzea erakunde barruan. Tolosaldean *arigunerik* gabeko entitatetik apenas egongo dela esan du Artolak, eta, noski, Galtzaundi euskara elkarteak kideak pozik daude jasotako erantzunarekin: «Duela bi urteko Euskaraldian 8.000 lagunek parte hartu zuten Tolosaldean, eta kopuru horren laurdenak dagoeneko aurtengoan parte hartzeko konpromisoa hartu du entitate barruko *ariguneak* identifikatzerakoan». Ez da kopuru makala COVID-19aren testuinguruan. Artolak aitortu du aurtengoa ez dela Euskaraldirik «errazena eta

erosoena» izango, baina emandako urrats bakoitzari balioa eman behar zaiola nabarmendu du. «Eskualdeko pertsona baten hizkuntza ohiturak aldatzea lortzen badugu, ez dugu irakurketa ezkorra egin behar bakar batengan eragin dugula esanez; pertsona hori zakura batu zaigun beste bat da, bat gehiago».

Tolosaldea eskualde euskalduna da eta euskaraz lasai aritzeko gune asko dauzka, baina dinamizatzaileak dioenez, «justu horregatik ez dugu erlaxatu behar». «Garrantzitsua da hemen ere *arigune* horiek izendatzea, identifikatzea, modu horretara, besteak beste, Euskal Herriko beste gune ez hain euskaldunei gure babesa adierazten ari garelako. *Arnasguneetan* ere badute euskarari eusteko ardua. Askotan leku horietan naturalki egiten da euskaraz, berez horrela delako, kontzientzia handirik gabe. Garrantzitsua da eremu horiek blindatzea eta naturalki egiten duguna kontzienteki egiten hastea. Hemen euskaraz egiten dugu, eta horrela egiten jarraitu nahi dugula adierazteko balioko du aurtengo Euskaraldiak Tolosaldean».

“Euskaraz egiten dugu, eta horrela egiten jarraitu nahi dugula adierazteko balioko du aurtengo Euskaraldiak Tolosaldean

”

“Euskaldunak gara eta hemen egon behar garela pentsatzen dugu”



KOLDOBIKA JAUREGI

Alkizako Ur Mara museoko
arduraduna

Alkizan dagoen Ur Mara museoko kidea da Koldobika Jauregi. Euskaraz egitera beharrak eramango gaituela uste du.

Zer da Ur Mara museoa?

Espainiako Estatuko museo bakarra da non artea eta natura uztartzen diren, biek in egiten dugu lan, nolabait esateko.

Zergatik hartu duzue arigune izateko erabakia?

Ez dago asko azaldu beharrik, nire ustez; euskaldunak gara eta hemen egon behar garela pentsatzen dugu. Ez dugu beste arrazoirik, gure logika da hori. Bisitari kanpotar asko izaten ditugu eta gure burua euskaraz aurkezten dugu beti.

Gaztelaniara ere jo beharko duzue...

Dagoen jende kopuruaren arabera

batzuetan elebitan egin behar izaten dugu aurkezpena, euskaraz eta gaztelaniaz, izan ere hizkuntza oso garrantzitsua da, bai, baina hizkuntzaz gain kulturaren transmisioa da garrantzitsuena gure ustez. Norbait atzean geratzen bada, ez duela ezer ulertzen euskaraz ez dakielako edo kanpotarra delako, bietan aritu beharra dugu, ez dugu beste erremediorik.

Zerk eramango gaitu guztia euskaraz egitera?

Beharrak; behar ekonomiko, sozial eta kulturalak. Ez bada behar ez da martxan jarriko. Edukazio txarreko kontu bat dela esan genezake, edo integrazio falta. Baina askotan ez da etorria, bertakoa baizik. Harrigarria goa da bertakoak euskaraz ez egitea edo esfortzu minimorik ez egitea.

“Ikastetxeok euskararen erabileran funtsezko erakundeak gara”



ANDU MARTINEZ DE RITUERTO

Alegiako Aralar ikastetxeko
zuzendaria

Alegiako Aralar ikastetxean euskaraz bizi dira eta barne antolaketa guztian darabilte. Arigune bezala ekarpena egiteko prest azaldu dira.

Zein mailatako ikasleek ikasten dute Aralarren?

DBHko ikasleak ditugu, 12 eta 16 urte artekoak.

Zergatik zarete arigune?

Ikastetxeok euskararen suspertze eta erabilera bultzatze horretan funtsezko erakundeak gara eta iruditzen zitzagun guk ere ekarpena egin behar genuela.

Euskaraz bizi al da Aralar ikastetxea?

Bai, gure ikastetxean erabat euskaraz aritzen gara, aspaldi diseinatu

genuen Hizkuntza Plana eta horrekin aritzen gara lanean. Barne lanketa guztietan erabiltzen dugu plan hori, bilera guztiak euskaraz egiten dira eta gurasoei ditugun harremanetan ere euskara lehenesten dugu; gurasoei galdetzen diegu ea informazioa euskaraz edo elebitan jaso nahi duten eta euskaraz jasotzea bultzatzen dugu. Gurasoen bileretan euskaraz egiten dugu eta laburpena egiten dugu gaztelaniaz.

Zertan eman behar dituzue aurre- rapausoak?

Atzerriko ikasle asko iritsi dira eta batzuk euskara hobetu arren eta euskara menperatzen joan arren, gaztelaniaz egiteko joera dute. Nik uste dut kontzientziario horretan eman behar dugula pauso bat aurrera.

“Ariguneak sortzeko ideia interesgarria iruditzen zaigu”

Zizurkilen kanpoko bezero ugari erakartzen dituen enpresa lan eta lan ari da. Egunerokoan euskara txertatzeko ahalegin betean daude.

Zein da zuen enpresaren zeregina?

Furgonetak prestatzen ditugu kanpinerako, asteburu pasa egiteko edo bertan bizitzeko. Horixe da gure zeregin nagusia.

Euskaraldian parte hartuko duzue, Arigune modura. Zer dela eta?

Aurreko edizioan parte hartu genuen, baina orduko hartan ez zegoen entitateei eskainitako atal berezirik. Galtzaundi Euskara Taldetik berrikuntza honen berri jaso genuenean parte hartzea interesgarria iruditu zitzaigun.

Zuen bezeroak urrutikoak izatera iritsi daitezke.

Enpresa euskalduna da, geu ere euskaldunak gara eta, beraz, normalean geure artean euskaraz aritzen gara. Geure lan esparrua estatu maila-

koa da. Frantsesekin ere lan egiten dugu, muga baitaude, eta hor arazo gehiago eduki ohi ditugu.

Euskaraz aritzea sustatzeko zein neurri hartu dituzue?

Hiru *arigune* sortu ditugu tailerrean bertan: bulegoaren kanpoaldea, barnealdea eta ekoizpenera eskainitako tarteak. Euskararen erabilera indartzeko izendatu ditugu. Izan ere, egunerokoan euskaraz hitz egiten dugu, baina batzuetan erdarara jotzen dugu. *Arigunea* euskaldunon arteko komunikazioa indartzeko izango da.

Zein hobekuntza ezarri daitezke euskararen zabalkundeari begira?

Sistema eragile batzuetako nabigatzaileak euskaraz jar daitezke, baina horrek ez dio zure lanari gehigarri bat ematen. Bestalde euskaratu gabeko erremintak ditugu, esaterako, mugikorrari euskaraz hitz egitea eta idaztea. Horrelako gauza batek asko lagunduko liguke.



AIMAR ALONSO

Zizurkilgo Norantz furgonetak enpresako arduraduna

“Euskara eguneroko lanean hizkuntza erreminta baliagarria da”

Lan esparrua eskualdea dute, zehazki 28 herrialdeetan. Enplegu sustapenerako arduraduna da.

Lan esparrua eskualdea duzue, bereziki udalerriak. Euskara egunerokoa izateko zailtasun handirik ez duzue izango...

Euskalduna den eskualde batean lan egiten dugu. Egunerokoan, geure arteko barne komunikazioa euskaraz egiten dugu. Kanpo komunikazioa, berriz, pertsona, norbanako edo entitatearen arabera, euskaraz edo erdaraz egiten dugu.

Arigunea non kokatu duzue?

Geuretzako garapen agentzia guztia da. Esan dudan bezala geure eguneroko jarduna, barrura begira eta kanpora begira, euskaraz izatea bermatzen dugu. Etortzen denak euskaraz hitz egiten badu geuretzako oso eroso da, euskaraz aritzen baikara eguneroko bizitzan ere.

Etorkizunari begira, euskararekiko dugun konpromiso horrekin jarraituko dugu, izan ere, helburua euskara eguneroko lanean hizkuntza erreminta baliagarri modura erabiltzea da.



LEIRE OTAEGI

Tolosalde Garatzen garapen agentziako langilea

“Ekoizle txikiekin egiten dugun bezala, euskara ere babesten dugu”



JAVI RIVERO

Tolosako Ama tabernako arduraduna

Ama ezaguna da, geroz eta gehiago. Defini ezazue zuen negozioa.

Taberna txiki bat daukagu, eta ostalaritza sektoreko bi langile gara, Gorka Rico eta biok. Sukaldari izatek zerbitzari izatera pasa gara pandemiaren geroztik, baina betiere geure kultura eta hizkuntza bermatuz.

Zuen kasuan euskara lehen hizkuntza da.

Bertako ekoizle txikiak babesten ditugun bezala, euskara ere babesteko daukagun zati txiki bat delako. Hasieratik defendatu genuen geure komunikazioa euskaraz izango zela lehen-dabizi eta, ondoren, beste hizkuntza batzuetan. Geure nortasunaren parte izanik, lehen-dabizi euskaraz agurtu eta, gero, saiatuko gara elkarrekin komunikatzen.

Tabernan, geure inguruko espazio honetan, euskaraz aritu gara hasiera-

tik. Erdaldun bat etorri z gero, erdaraz egingo diogu elkar ulertzeko, betiere, esan bezala, euskaraz agurtuz. Hasieratik euskaraz hitz egiten aritu garen bezala, orain eta etorkizunari begira horrela jarraituko dugu.

Zer duzue faltan?

Ostalaritza sektoretik hitz teknikoak euskaratzea askotan zaila egiten zaigu, ezjakintasunagatik adibidez, edota ez dakigulako nola esan, esaterako, sukaldaritza edo zerbitzuari lotutako zerbait. Beraz, horrelako hitzegi bat ostalariei helaraztea ondo legoke, kartak euskaratzen laguntzeko, zerbitzuak euskaraz eman ahal izateko edo zerbitzariak segurtasun gehiago edukitzeko bezeroekin hitz egitean; izan ere, badaukagu Euskal Herrikoa ez den jendea eta euskaraz saiatzen dena, baina, batzuetan, iristen da puntu bat zeinak ezin duen euskaraz komunikatzen jarraitu.

“Euskararen erabilera bultzatzen eta garatzen jarraitu nahi dugu”



IZASKUN BERNARAS

Tolosako Eroskiko langilea

28 urte dira Tolosako Eroski supermerkatua ireki zutela eta bertan aritzen da Izaskun Bernaras. Egiten dituzten bileretan euskara indartzen ari direla dio.

Zein da Eroskiren jarrera euskararekiko?

Eroskik, kooperatiba bezala, betidanik egin du apustu euskararen alde. Euskadin sortutako kooperatiba bat da eta beti egin du lan euskararen alde. Euskararen aldeko ekintza askotan hartzen du parte.

Barne antolaketarako bileretan euskara al da nagusi?

Gipuzkoan gaudenez, euskararekin

ez dago arazo handiegirik. Gu beti saiatzen gara jendeari euskaraz hitz egiten, *belarriprest* izaten gara normalean, eta euskaraz egiten diogu jendeari. Bileretan ere euskaraz egiten saiatzen gara. Atal bakoitzeko bileretan ere jende gehiena euskalduna izanda, euskaraz egiten dugu. Euskarari garrantzia ematen diogu, ohitura dugulako euskaraz egiteko.

Eta zein erronka dituzue?

Arduradunekin egiten ditugun bilerak, ataletan egiten ditugunak... euskara indartzen ari gara. Euskaraldia baliatuz, euskararen erabilera bultzatzen eta garatzen jarraitu nahi dugu, jendeari euskaraz hitz egin araziz.

“Euskarazko hitzak edo esaldiak erabiltzen ditut erdaldunekin,”

Fruta eta barazkiak eskaintzen dituzue, nagusiki. Zuen kasuan, lehen hitza euskaraz izan ohi da?

Nik euskara erabiltzen dut eta euskararekin hezi naiz. Denetarik daukat hemen, eta batzuetan jende erdalduna edo gaztelaniaz asko egiten duena etortzen da, baina saiatzen naiz oinarrizko gauzak esaten; esaterako, “zer nahi duzu?”, “eskerrik asko” edota “besterik behar duzu?”.

Euskararen aldeko sentsibilizazio berezia erakutsi duzu.

Garai batean udaletxetik euskarazko kartelak jartzeko proposamena iritsi zitzaidan, eta jartzea erabaki nuen, izan ere, izen batzuekin ez nengoen ohituta eta harrigarriak egiten zi-

tzaizkidan. Gaur egun, erabat erabiltzen ditut kartelak.

Ahobizi eta belarriprest aktiboak sustatzea ezinbestekoa da.

Zenbaitekin ez dut erdaraz hitz egiteko joera edukitzen. Euskaraz hitz egiten duela baldin badakit, ez zait erdarazko hitzik ateratzen. Jende erdaldunarekin, askotan lehen hitzak erdaraz esaten ditut, baina txipa aldatzen dut eta euskarazko hitzak edo esaldiak erabiltzen ditut. Egia da, herriar erdalduna umearekin etortzen denean, gehiago saiatzen dela edo lotsa gutxiago ematen diola, ez dakit zergatik. Esan izan didate, “ez dut ondo egiten eta, beraz, lotsa ematen dit”. Askotan esaten diet: “zuek jarraitu horrela!”.



BEGOÑA ELOLA

Amasa-Villabonako Baratz fruta-dendako arduraduna

“Barne arigune bezala eman dugu izena,”

Ibarra Sokatira taldeko kidea da Lierni Arozena. Taldean euskara da nagusi, baina badute erronkarik: “Euskal Herriko txoko desberdinetatik etortzen direnekin euskaraz egitea, nahiz eta beraiek gaztelaniaz egin lehen harreman horretan”.

Zergatik erabaki duzue arigune bezala izena ematea?

Euskaraldian entitate bezala izena emateko aukera luzatu ziguten eta ez genuen gehiegi pentsatu behar izan. Barne arigune bezala eman dugu izena, gure arteko harremana euskaraz izaten delako, eta beste taldekideekin eta sokatira taldeetako ezagunekin euskaraz aritzen garelako.

Euskara al da nagusi sokatira taldean?

Euskaraz bizi gara gure taldean, bai nesketan zein mutiletan ere, eta

gure harremana euskaraz izaten da. Taldea bitan banatzen da nagusiki, txapelketek hori eskatzen dutelako; neskak aritzen gara batetik eta mutilak bestetik, baina gure arteko harremana euskaraz izaten da nagusiki. Egia da zuzendaritza taldeko pertsona batek ulertzen duela, baina zailtasunak dituela hitz egiteko, eta badugu joera berarekin gaztelaniara jotzekoa.

Zeintzuk dira taldeko erronkak etorkizunera begira?

Bi erronka ditugu; zuzendaritzako pertsona pare batekin *belarriprest* figura mantentzea eta guk euskarari eustea *ahobizi* garen aldetik, eta Euskal Herriko txapelketa izaten dugunean txoko desberdinetatik etortzen direnekin euskaraz egitea, nahiz eta beraiek gaztelaniaz egin lehen harremana.



LIERNI AROZENA

Ibarra Sokatira Taldeko tiratzailea



Naturaltasunez egiten dena, kontzienteki egiteko gonbita

Konfort-zonatik urruntzean euskarari eusteko ariketa proposatzen du Euskaraldiak; baita egunerokoan euskaraz bizi direnen inguruan euskararen presentzia ikusarazi eta hautu kontziente hori agerraraztekoa.

Euskaraldia euskararen lurralde osorako pentsatuta dago, eta inguruko bazter eta txoko guztiak hartuko ditu aurtengoan ere, baita euskararen erabilera altua duten udalerrietakoak ere. Hots, euskararen *arnasguneetakoak*.

Eguneroko jardunean euskaraz bizi diren auzo, herri edo eskualdeei deitzen zaie *arnasgune*, eta haiek ere izango dute zeregina Euskaraldian. Herri horietan euskaraz aritzea erabat naturala eta ohikoa izanagatik, antolatzaileei “ezinbestekoa” iruditzen zaie “hizkuntzaren erabilera hauspotzea, baita praktikan normaltasun osoz erabiltzen dugun lekuetan ere”.

Zer gertatzen da eremu horietan jatorri linguistiko ezberdinetako bizilagunak elkartzean? Lanera, ikastera edo erosketak egitera herritik kanpora joandakoan zein da erabiltzen den hizkuntza? Zein hizkuntzatan duzu konfiguratuta sakelakoa? “*Arnasguneak* ez dira eremu blindatuak; aitzitik, eremu hauskorak dira”, eta hor ere lan egin nahi du Euskaraldiak, “*arnasguneetan* sor litezkeen joera aldaketak detektatu eta ekidinez”.

Praktika indartu ezean, *arnasguneetako* hizkuntza ohiturak ere di-da batean alda daitezkeela diote. Horren aurrean, eremu euskaldunetan bizi direnek bi zeregin nagusi dituzte: batetik, hizkuntza-ohiturak finkatu eta iraunaraztea, eta bestetik, euskaraz bizi direla azpimarraztea. Euskaraldia bezalako ariketa kolektiboak, errealitate hori erakusteaz gain, “bakoitzaren borondatea sendotu eta talde identitate linguistikoa aldarrikatzeko aukera” ematen du.

Zer egin?

Bizilekuko konfort-zonatik urruntzean euskarari eusteko ariketa proposatzen du Euskaraldiak. “Gutako bakoitzaren hautu kontzientea indartu eta berresteko baliatu behar dugu”. Besteak beste, herrira bisitan, lanera edo bizitzera datozenei ongi etorria euskaraz eta euskaratik egiteko gonbidapena luzatu nahi zaie parte-hartzaileei. Gainera, herrian *ahobiziak* eta *belarriprestak* daudela erakusteak euskararekiko “interesa eta desira” piztu lezake.

Euskaldunon aniztasuna bistaratzea ere bada Euskaraldiarekin ematen den pauso bat: “Euskararen erabilera ez da soilik hiruzpalau militanteren aldarria, herritar ugariren eguneroko tresna komunikatibo nagusia baizik”. Herriko denda, erakunde eta elkarteetan sortuko diren *ariguneak* bistaratuko dute hori. Horretarako banatuko zaizkie baliabideak, “euskararen presentzia ikusarazi eta hautu kontzientea agerrarazteko”.

Euskara ezpainetan mugiarazteko ahalegina da egingo dena. Eta joera batzuez hausnartu eta ohiturak aldatzea izango da egitekoetako bat: “*Arnasguneetan* badago joera gertukoekin euskalkian aritu eta kanpotik etorritakoei erdaraz mintzatzekoa, batua artifizialtzat hartuz edo. Inpresio hori desegiteko aprobe txatu behar dugu Euskaraldia, euskara onena erabiltzen dena baita”.

Finean, Euskaraldia aukera bat da. “Erabili dezagun Euskal Herri mailako dinamika eraldatzaile hau gure etxe eta auzoetan darabilgun ohiko mintza-jardunari eutsi, erabilera tinkotu, eta euskararen aldeko hautua gure herrietako mugetatik harago hedatzeko”.

“Euskaralditik kanpo ere gure ardura da euskaraz egitea”

Arnasguneetan bizi direnak orokorrean euskaraz bizi badira ere, badute zeregina Euskaraldian; naturaltasunez egiten dutena kontzienteki egin dezaten eskatuko zaie ahobiziei eta haien ahaleginean bidelagun izatea belarriprestei.



ANE ARANBURU SEGUROLA,
UEMAko teknikaria

UEMAko teknikaria da Ane Aranburu Segurola (Azpeitia, 1986) eta Tolosaldeko herrietan dihardu lanean. Bere esanetan, euskararen eta *arnasguneen* garrantzia ikusteko eta ulertzeko beharrezkoa da inertziatik kontzientziarako saltoa ematea: “Bestela, ia oharkabea, gero eta joera handiagoa dago erdaretara jotzeko”. Bide horretan, hizkuntza-ohituretan eragiteko ekimen aparta iruditzen zaio Euskaraldia.

Arnasguneetan nagusiki euskaraz hitz egiten bada, zergatik hartu behar dute parte Euskaraldian *arnasguneetan* bizi direnek?

Hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa kolektiboa da Euskaraldia, eta horrek bat egiten du zeharo UEMATik azken urteotan herritarrek ahalduzazko eta kontzientziatzeko abian ditugun ekimenekin. Izan ere, inertziatik kontzientziarako saltoa emateko ezinbestekoa da herritarren ahalduzazkoa, euskararen eta *arnasguneen* garrantzia ikusi eta uler dezaten. Bestela, ia oharkabea, gero eta joera handiagoa dago erdaretara jotzeko. Bai gure herrietara bizitzera edo bisitan datozenekin eta gure hizkuntza ohiturak ezagutzen ez dituztenekin, eta bai gu geu herritik kanpora ateratzen garenean ere, lanera, ikastera edo erosketak egitera. Horrek guztiak eragin handia duenez gure hizkuntza ohituretan, ezinbestekoa da kontzientziazio lana, eta Euskaraldia ekimen aparta da horretarako.

Hizkuntza-ohituretan aldaketak egin beharko dituzte, beraz?

Bai, jakina. Hori da ariketa kolektibo honen helburuetako bat. Izan ere, badirudi erabat euskaraz bizi garela *arnasguneetako* herritarrek, baina euskararentzat eremu asko ditugu irabazteko oraindik. Mundura zabalik dauden herri garaikideak dira gureak, eta arau soziala euskaraz aritzea baldin bada ere, hauskorra da *arnasguneen* ekosistema, edozein aldaketak eragin dezakeelako euskarak atzerantz egitea. Aldiz, herritarrek kontzientziatuta eta hautu zehatzak eginda, hainbat eremu irabazteko era baliagarria da

ariketa hau, bai herrian bertan, bai inguruko herrietara joaten garenean ere. Batean zein bestean, euskaldunak garela erakusteko aukera ederra da Euskaraldia.

Zein dira Euskaraldiari begira norbanakoen egiteko nagusiak *arnasguneetan*?

Ahobizi edo *belarriprest* txapa jartzea eta rol hori hartzea bi konturen erakusle da: batetik, euskaraz aritzeko gogoia eta aldarrikapena, eta bestetik, gainerakoei ere euskaraz aritzeko egiten zaien gonbidapena. Borondate pertsonala eta jarrera kolektiboa uztartzen ditu, eta horrek ahalegin kontzientea eskatzen duela hartu behar dute kontuan, rol bakoitzaren funtzioak eta konpromisoak bete ahal izateko. Euskararen arnasa lau haizetara zabaltzea izango da *ahobizien* egitekoa, eta ahalegin horretan bidelagun izatea, berriz, *belarriprestena*.

Hizkuntzaren inguruko hausnarketa orokorra egiteko ere balioko du...

Bai, noski. Azken batean, *arnasguneetan* naturaltasunez euskaraz aritzen garela uste badugu ere, hainbat esparrutan gure hizkuntza nagusia ez da euskara. Hornitzaileen fakturak zein hizkuntzatan jasotzen ditugun, telefonoa edota ordenagailua zein hizkuntzatan konfiguratuta dauzkagun, filmak zein hizkuntzatan ikusten ditugun, euskarazko hedabideak ala erdarazkoak gailentzen zaizkigun egunerokoan, kontsumitzaile gisa euskara errespetatzen duten ekoizleak lehenesten ote ditugun eta abar luzeaz hausnar dezakegu, eta oraindik ere emateko pauso asko geratzen zaizkigula ohartu. Horietan eragiten hasiz gero, denon artean aldaketa handiak eragin ditzakegu.

Eta herri gisa ere izango du eragina...

Jakina. Pentsa herritar edo kontsumitzaile modura zer eragingo genukeen alor guztietan euskaraz aritzen direnak lehenetsiko bagenitu. Euskaraldia bezalako ariketa kolektiboan parte hartuta, horrelako aldaketak eragiten ditugu, bai herri mailan, bai eta gure eraginpeko eremuetan ere.

“Euskaraldia iristeko gogoz nago”



LEIRE JAUREGI

Berrobiko batzordeko kidea

Nolako izan zen duela bi urteko esperientzia?

2018ko Euskaraldian Berrobik ez zuen herri gisa parte hartu. Euskara batzorderik ez zegoen momentu hartan gure herrian, eta ez genion Euskaraldian partaide izateko erronkari eutsi. Egia esan, pena pixka bat eman zidan horrek. Aurten, aldiz, egoera horri buelta eman, eta Euskaraldian parte hartuko du Berrobik herri gisa. Oso pozik nago horregatik. Gainerantzean, *ahobizi* gisa aritu nintzen 2018ko Euskaraldian, eta oso esperientzia polita izan zen hura niretzat.

Zer ikasi zenuen aurreko ariketa hartatik?

Norbanako gisa, Euskaraldiak iraun zituen hamaika egun haiek oso pozik eta ilusio handiz bizi izan nituen. Oraindik ere, *ahobizi* txapa jantzita ibiltzen naiz askotan. Egun bereziak

izan ziren haiek niretzat. Egia esan, Berrobiko jende gutxi hartu genuen parte, baina gehienok *ahobizi* izateko hautua egin genuen. Orokorrean, hautu bera egin zuen nire inguruko jende gehienak, eta poz handia eragin zidan horrek. Aurtengo Euskaraldia iristeko gogoz nago dagoeneko.

Zein izango da aurtengo edizioaren berrikuntza nagusia?

Berrobiren parte-hartzea izango da guretzat berrikuntzarik nagusiena, zalantzarik gabe. Inguruko jende askok lagundu digu bide honetan, eta azkenean, gure helburua lortu dugu. Oso pozik gaude Berrobik Euskaraldian parte hartuko duelako. Nolanahi ere, lan hauetan berriak gara eta Euskaraldia gerturatzen doan heinean ikusiko dugu zer moduz moldatzen garen. Ilusioa eta lanerako gogoia ez zaizkigu falta.

“Garrantzia du *belarriprestak*”



URKO KOLOMO

Tolosako batzordeko kidea

2020ko Euskaraldiari begira motorrak berotzen hasiak zarete dagoeneko... Nola doaz prestaketa lanak?

Talde eragilea osatuta ari gara lanean. Orain arte entitateekin harremanetan jarri eta Euskaraldia zer den azaltzen aritu gara gehienbat. Hemendik aurrera, norbanakoen artean informazioa eta formazioa zabaldu eta Euskaraldian izena emateko aukera eskaintzea izango da egiteko nagusia. Aurreko edizioan egin bezala, mahai informatiboak jarriko ditugu puntu ugarian, sortzen diren zalantzak argitu eta jendearengana heltzeko.

Ahobizi eta *belarriprest* figurak indartu nahi dira aurtengo edizioan...

Bi figura horiek sortu ziren 2018ko Euskaraldian, eta haien funtzioa ez da aldatu. *Ahobiziak*, euskaraz komunikatzeko gai diren pertsonak

dira, baina horrez gain, konpromiso zehatza eskatzen zaie: lehen hitza euskaraz egitea, euskaraz ulertzen duenarekin euskaraz egitea eta hizkuntza erregistroa ez aldatzea, baldin eta inork eskatzen ez badio. *Belarriprestak*, aldiz, berari euskaraz egiteko prestutasuna azaltzen du.

Bereziki indartu nahi da aurtengoan *belarriprestaren* papera...

Tolosaldean euskaraz ulertu eta hitz egiteko gaitasun handia dago. Askotan gertatzen zaigu, ordea, euskaraz hitz egiten ez duen norbait gerturatzen zaigunean gu ere gaztelaniaz hastea. Gure jarduna euskaraz jarrai dezakegula adierazten digu *belarriprestak*. Prestutasun hori oso garrantzitsua da. Eguneroko ohitura linguistikoetan oso paper garrantzitsua jokatzeko du, euskaldunoi euskaraz jarduteko bidea erraz diezagukeelako.

“Euskaraldia zintzotasun ariketa bat da”

Arigunea kontzeptu berria jarri da abian aurren: norbanakoei ez ezik, taldeko jardunari ere lekua egin nahi baitzaio Euskaraldian... Nola gauzatuko da hori?

Duela bi urteko Euskaraldia norbanakoaren konpromisoa izan zen, eta norbanakoen konpromisoetatik taldekoetara jauzi egitea lortu nahi da aurren. Horretarako, Euskal Herrian euskaraz egiteko aukera ematen duten gune, eremu edo txokoak badaudela irudikatu nahi da; jendeak euskara erabiltzeko garaian zalantza edo kezkarik izan ez dezan. Horrez gain, entitateen barruan funtzionamendu-moldeak jarri eta konpromisoak bultzatzeko modua ere bada: entitate horren barruan *arigune* gisa izena eman dutenek barruko funtzionamenduan kontzientziazioa bultzatu eta aldaketa eragiteko. Izan ere, Euskaraldiak iraungo duen bi asteetan

ohitura batzuk sortuko dira, baina aurrera begira ere ohitura horiek iraunaraztea lortu nahi da.

Nola erantzun dute entitateek?

Elkarteek, enpresek, saltokiek, administrazioak... Era askotako elkarte eta taldeek osatzen dute entitateen esparrua. Aduna mailan oso gustura gaude haien erantzunarekin. Eskertu egin nahi diegu ekimenari harreara ona egiteaz gain, borondate eta asmo ona erakutsi digutelako.

Ekiteko prest, beraz...

Bai. Aurren, entitateena berrikuntza izan arren, ekimena dagoeneko ezaguna izateak erraztu egiten du bidea. Euskaraldia zintzotasun ariketa bat da, zeinetan parte-hartzaileek hausnarketa egin behar duten, 15 egun horietan errealitateaz jabetu eta konpromisoak hartzeko.



MIREN ABURUZA

Adunako batzordeko kidea

“Euskaraz bizi eta lan egitea posible da”

Nolakoa izan da Euskaraldia prestatzeko lana urte berezi honetan?

Udan zehar online egin genituen bilera. Eta irailaz geroztik berriz ere aurrez aurre biltzen hasiak gara, segurtasun neurriak betez. Pixkanaka, baina gelditu gabe.

Entitate ezberdinei zuzendutako bilera antolatu genuen Altzon, eta talde ugarik egin zuen bat. Erantzuna ona izan da. Entitateek ekimenean izena emateak barruko norbanakoek ariketan parte hartu behar dutela esan nahi du; norbanako horiek egingo dutela lan. Ea guztion artean emaitza positiboa lortzen dugun.

Entitateen izen-ematea amaituta, eta norbanakoena martxan dagoela, gu ere berotze lanekin hasiko gara aurren.

Altzo herri txikia da, euskalduna, *arnasgunea*. Horretaz jabetu, eta besteentzat ere eredu izan behar dugu.

Zein giro sumatzen duzu kalean?

Berrogeialdian, etxean sartuta egon ginen garaian, giro polita sortu zen Euskaraldiaren baitan leihotetan koloretako borobiltxoak jarri nahiz bideoak zabalduz. Orain, norbanakoen izen-ematearekin, eta herri mailan aktiboki ekintzak antolatzen hasten garenean piztuko da giro hori berriz ere.

Euskaraldian parte hartzera animatuko nuke jendea. Orain euskaraz hitz egitea gerora begirako lana baita. Oraindik euskaraz egiteko ohiturarik ez duenak, pauso bat ematea besterik ez luke. Eutsi egin behar zaio, saiatu, eta aurrera egin.

Zein helburu nabarmenduko zenuke aurtengorako?

Orain bi urtekoa hobetzen saiatu, eta beste herriei begira eredu izatea. Euskaraz bizi eta lan egitea posible dela erakutsi behar dugu.



MARI MURUA

Altzoko batzordeko kidea



EUSKARALDIA

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

AHOBIZI:

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea izango da.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari: Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Elkarriketa elebidunetan, euskaraz: Komunikazioa bermatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Eutsi euskarari!:

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



www.euskaraldia.eus

“Euskarara hurbiltzeko eta jendea euskaraz ezagutzeko tresna polita da Euskaraldia”



ITXASO ERASUN

Ahobizia

Itxaso Erasun zizurkildarra (1998) euskaraz bizi da egunerokotasunean. *Ahobizi* lanetan aritu zen orain bi urteko Euskaraldian, eta oroitzapen polita gorde du. Iristear den aurtengo edizioan ere *ahobizi* izateko prest dago. Gogotsu, gainera: “beti egongo naiz *ahobizi* izateko prest”, adierazi du.

Nola gogoratzen duzu *ahobizi* izatearen esperientzia? Eta orokorrean, nola gogoratzen dituzu aurreko Euskaraldiko egunak?

Egia esan, oso oroitzapen onak dauzkatz; esperientzia ona izan zen. Baina orokorrean, Euskaraldiko egunak gainontzeko egunak bezala gogoratzen ditut; izan ere, nire egunerokotasunean euskaraz hitz egiten dut bai familiako kideekin, bai lagunekin, bai unibertsitatean... Nire inguru guztia euskalduna da, eta polita izan zen herrikideek txapak nola erabiltzen zituzten ikustea; zer esanik ez, euskaraz hitz egiteko zer nolako aukera ematen zuten konturatzea.

Ariketa kolektiboa izan zen, gizartea bere osotasunean hartuta. Aurtengoan errepikatu egingo da ariketa... Aurreko edizioan ikasitako leziorik aipatuko al zenuke?

Aurreko edizioan ikasi genituen lezio garrantzitsuen artean, esate baterako, nahiz eta guk uste pertsona askok ez dakitela edo ez dutela euskara ulertzen, Euskal Herrian bizi garen gehienok ulertzen dugula gutxieneko euskara hori: hau da, hitz ohikoenak ezagutzen ditugula esan genezake. Beraz, erdarara jo aurretik euskara erabiltzeko ahalegina egitea, eta gure egunerokotasunean euskarara jotzea izan zen ikasitako lezioetako bat.

Inguru oso euskaldunean bizi zara, baina badira han ere eremu erdaldunak. Euskararen bidetik jendea ezagutzeko eta euskarara hurbiltzeko ariketa modura ikusten al duzu Euskaraldia?

Euskaraldia ekimen polita izan zela uste dut, eta aur-

tengoa ere horrelako zerbait izatea espero dut. Ekimen horren bidez euskararen erabilera bultzatzea lortzen da, eta oso baliabide ona da erabiltzen ez dutenak euskarara gerturatzeko. Hortaz, esango nuke euskarara hurbiltzeko eta jendea euskaraz ezagutzeko tresna polita dela Euskaraldia.

Euskararen ezagutza altua izan arren, apalagoa da erabilera. Zure ustez, zergatik jotzen dute zenbait gaztek gaztelaniara?

Gaur egungo gazteria oso erdaldunduta dagoela esango nuke. Nire ustez, sare sozialek, telebistak eta, oro har, teknologia berriek bultzatu dute hori. Azken finean, material guztia erdaraz aurki dezakegu, eta azkenean, gazteak bertan murgilduta egoteak eta hori kontsumitzeak bultzatzen du erdararako joera izatea eta euskara albo batera uztera.

Nola hobetuko zenuke egoera hori?

Ez diot konponbide edo irtenbiderik ikusten. Euskaraz egitea etxetik datorkigun zerbait dela esango nuke. Txikitatik euskara bultzatu eta euskaraz bizi izan gara, eta nik uste, horregatik dugula joera hori. Beste leku batzuetan, erdaldunagoak direnek, aldiz, ez dute agian horrelako aukerarik eduki. Baina hori hobetzeko, Euskaraldia bezalako ekimenek asko lagun dezakete euskararekiko joera indartzen.

Aurtengoa berezia izango da. Distantzia hartuta eta musukoa erabilia ere *ahobizi* izateko prest al zaude?

Noski, *ahobizi* izateko beti prest. Bai aurreko Euskaraldian, bai oraingoan eta etorririko diren guztietan ere, beti *ahobizi* izateko prest egongo naiz ni.

“Euskaraldia bezalako ekimenek asko lagun dezakete euskararekiko joera indartzen”



EUSKARALDIA

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

BELARRIPREST:

Hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu eta zeuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Jarrera horrek euskararen atea zabalduko dizkizu eta denon artean erabilera handituko dugu. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari: Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Adierazi euskararekiko prestutasuna: Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere, nahi eta ahal beste erabili. Zure euskara da euskararik onena.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Egin lekua euskarari:

Adierazi (euskara ulertzen duzula eta jaso nahi duzula), **ekin** (ahal eta nahi duzunean euskaraz hitz egin), **jakinarazi** (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko eskatu).



www.euskaraldia.eus

“ Beti nago prest euskara entzuteko, eta beti egongo naiz prest euskaraz erantzuteko ”



MILA CANSECO

Belarripresta

Duela 48 urte heldu zen Tolosara Mila Canseco Nieto (Donostia, 1951). Ofizioz dendaria izan zen, eta betiere, zerbitzua euskaraz eskaintzeko ahaleginetan aritu zen. Oraindik ere herri mugimenduetan buru-belarri ibiltzen da lanean. Ausartegitza eta mugitutzat jotzen du bere burua, baina edozeren gainetik, “euskalduna naiz”, dio.

Nolakoak izan ziren euskararekin izan zenituen lehen harremanak?

Gurasoak inguru erdaldunekoak izan arren, eskolako lagunak baserritarrak ziren. Hortaz, nahiko azkar ikasi nuen euskaraz. Hortik aurrera, gutxinakako prozesu bat izan da. Tolosan euskaltegian ere aritu nintzen; irakasleak esaten zidan behin eta berriz hitz egiten hobetuko nuela. Lanean, berriz, beti saiatu izan naiz euskara lehen hizkuntza izan zedin. Bezeroek gaztelaniaz egin ohi zidaten lehen hitza, aurpegiz ere erdaldun itxura dudalako, baina konfiantza apur batekin, euskaraz zuzentzen hasi nintzaizen. Orain, lagun artean ere, gaztelaniaz egiten dugu askotan, euskaraz egin dezakegula ohartu gabe.

Zer nolako garrantzia du euskarak zure egunerokoan?

Beti saiatzen naiz lehen hitza euskaraz egiten, eta zenbaitetan aritzen naiz; baina askotan, segurtasun ezagatik eta beldurraren eraginez, ez naiz eroso sentitzen. Kasu batzuetan, beraz, arazo txiki bat izaten da niretzat. Hala ere, oro har, euskara oso garrantzitsua da niretzat. Herri ekimen ugaritan ibiltzen naiz, eta bileretan euskaraz aritzen saiatzen naiz. Esan beharrekoa gaztelaniaz pentsatzen dut, eta euskaraz bota aurretik, ondo pentsatu behar izaten dut zer eta nola esan. Hori bai, mantsoago egiten dut euskaraz, eta beraz, dezente luzatzen naiz denboran. Hori dela eta, batzuetan, denbora ez galtzearen, gaztelaniara jotzen dut. Gehienbat bi arazo aurkitzen ditut euskaraz aritzerakoan: arestian aipatutako denbora galera, eta aditzen erabilera.

Eta zer egin zenezake beldur hori gainditzeko?

Ez da erronka erraza, baina egunetik egunera konfiantza

handiagoa dut nire buruarengan; gainera, ingurukoek eta ezagunek, euskaraz ondo aritzen naizela esaten didate, babestu egiten naute. Euskal hiztunek, adibidez, haiek ere hanka-sartzeak egiten dituztela aipatzen didate, eta horrela, euskaraz gehiago egitera animatzen naute.

Zer dela eta hartu zenuen parte Euskaraldiaren lehen edizioan?

Euskaraldian parte hartzeko beharra sentitu nuen; ezin bestekoa da horrelako ariketa sozialak antolatzea. Beti nago prest euskara entzuteko, eta beti egongo naiz prest euskaraz erantzuteko.

Orduko hartan, *belarriprest* askoren hutsunea nabaritu zuten herritarrek. Iritzi berekoa al zara?

Kontzientzia falta dagoela esango nuke. Ugariak dira jendearen beldurrak eta lotsak, ez Euskaraldian bakarrik, gizarteko edozein alorretan baizik. Parte ez hartzearen erosotasuna ere kontuan izan behar da. Jendea egon badago, baina ez da izena ematera ausartzen. Gainera, *belarriprest* rolak zer esan nahi duen ondo ulertu gabe, *ahobizi* baino maila baxuago batean kokatzen dute, zerbait negatiboa balitz bezala. Ondorioz, herritar guztien beharra ezinbestekoa dela nabarmendu behar dugu, bai rol batean zein bestean.

Aurten ere izena emateko asmorik ba al duzu?

Bai, prest nago. Gurea den hizkuntza bere osotasunean berreskuratzeko helburua jarri diot nire buruari.

Euskaraldia amaitu ondoren, nolako egoerarekin egingo ote dugu topo?

Auskalo. Duela bi urte bazirudien eragin nabarmena izan zuela. Hala ere, 10-12-14 egun gutxi iruditzen zaizkit hizkuntza baten erabileraren garrantzia neurtu ahal izateko. Uste dut garrantzitsua dela urtean zehar ere txapa gainean eramatea, ikusgarritasuna eman behar diegu rol horiei, ez daitezela ezkutuan gera.

Izan ditzakezun **GALDEREI,** **ERANTZUNA!**

Arigune batean izena emanda dut. Norbanako gisa ere eman behar al dut?

Bai. Entitateren batek sortutako arigune baten parte bazara ere, norbanako gisa izena eman beharra dago, Euskaraldian parte hartzeko eta txapa jaso ahal izateko.

Euskaraldian eman dut izena. Eremu guztietan Ahobizi edo Belarriprest izan behar al dut?

Ahobizi zein Belarriprest izan, aukeratu duzun rola egunero eta edozein lekutan praktikan jartzea proposatzen dizugu, eguneko 24 orduetan. Azken finean, ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzea edo eta dakitenei egiteko gonbidapena luzatzea dira gure nahiak. Eta horretarako ez dago mugarik, ezta ekimena bukatzean ere!

Kalean soilik jantzi behar al dut txapa?

24 orduko ariketa denez, etxean, kalean edota lanean txapa soinean ematea gomendatzen dizugu. Zeuk ikusi beharko duzu zein egoeratan eraman ahal duzun. Hala ere, ariketa ongi burutzeko, Ahobizi edo Belarriprest zara eguneko 24 orduetan. Errazagoa izan daitekela ohitura ezezagun batekin aldatzea? Noski, baina garrantzitsuagoa da ezagunekin egitea aldaketa hori: bikotea, gurasoak, kuadrillako lagunak, lankideak...

Non, nola eta noiz jasoko dut txapa?

Ekimena baino egun batzuk lehenago jasoko duzu txapa, eta, horretarako, aldeztu aurretik izena eman beharko duzu. Behin izena emanda, zure herrian jasoko duzu txapa, Euskaraldia hasi baino bi aste lehenago. Kontakturako jarri dituzun datuen bidez esango zaizu non eta noiz jaso, beraz, egin kasu posta elektronikoari edo mugikorriari!

Izan ditzakezun **GALDEREI,** **ERANTZUNA!**

Oraindik ez dut eman izena. Non eman dezaket?

Errazena euskaraldia.eus webgunean izena ematea duzu. Hala ere, herriz herri izen emate puntuak eta eskura dituzu:

ABALTZISKETA: Liburutegia.

ADUNA: Udaletxea (goizez),
liburutegia (arratsalde).

ALBIZTUR: Udaletxea.

ALEGIA: Kultur Etxera deituta.

ALKIZA: Udaletxea.

ALTZO: Ostatua.

AMASA-VILLABONA: Liburutegia.

AMEZKETA: Kultur Etxea.

ANOETA: Liburutegia.

ASTEASU: Patxine, Iturri-ondo,
Kabela.

BALIARRAIN: Udaletxe sarrera.

BERASTEGI: Udaletxea.

BERROBI: Udaletxea.

BIDANIA-GOITZ: Udaletxea.

ELDUAIN: Zentroa.

GAZTELU: Udaletxea.

IBARRA: Udaletxea, Kultur Etxea.

IKAZTEGIETA: Ostatua.

IRURA: Kulturunea.

LEABURU-TXARAMA: Ostatua.

LIZARTZA: Udaletxea.

ORENDAIN: Ostatua.

TOLOSA: Kultur Etxea, Galtzaundi.

ZIZURKIL: Udal bulegoak.

Euskaraldia hasi da eta ez dut izenik eman. Oraindik izena eman dezaket?

Berandu zabiltza, baina hobe berandu inoiz ez baino. Euskaraldiak irauten duen hamabost egunetan zehar izena emateko aukera izango duzu. Horretarako jo ezazu Galtzaundi Euskara Taldera eta bertan emango dizugu txapa.

Informazio gehiagorako:

Galtzaundi Euskara Taldea
Nafarroa etorbidea 6 – Tolosa

Telefono zenbakia: 943 655 004

WhatsApp zenbakia: 688 738 418

E-posta: euskaraldia@galtzaundi.eus

Webgunea: www.galtzaundi.eus



EUSKARALDIA

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ARIGUNEA:

Euskaraz aritzeko guneak, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro.

**Euskaraldian parte hartu nahi dut.
Ba al dut arigunerik?**

Entitatearen egituraren baitan ba al dago euskara ulermena bermatuta dagoen talderik?

BAI

Taldeko %80a, gutxienez, prest al dago AB/BP moduan parte hartu eta arigunea sortzeko?

BAI

BARNE ARIGUNEA

Ba al dago herritarrekiko harreman gunerik?

BAI

Gune horietan uneoro euskara ulertzen duen kide bat egotea bermatu daiteke?

Gune horretako pertsona(k) prest al daude ahobizi/belarriprest izan eta arigunea osatzeko?

KANPO ARIGUNEA



¿QUÉ ES EUSKARALDIA?

Euskaraldia es un ejercicio colectivo social para aumentar el uso del euskera entre la población. Del 20 de noviembre al 4 de diciembre de este año, Euskaraldia ha propuesto hablar más euskera, con más gente y en más ocasiones. Podrá participar en esta edición toda la población mayor de 16 años que sea capaz de entender euskera.

El objetivo principal de Euskaraldia sigue siendo el mismo que en la edición anterior: ayudar a l@s ciudadan@s que quieren dar un paso más con el euskera; pasar del apoyo a la acción.

¿QUIÉN VA A PARTICIPAR?

Participarán las personas mayores de 16 años que quieran dar un paso más en el uso del euskera. Al tratarse de un ejercicio práctico, deben ser capaces de entender el euskera y, dependiendo de cómo se realice el ejercicio, elegirán entre dos roles que se identificarán mediante una chapa.



Ahobizi: “me comunico siempre en euskera con aquellas personas que lo entienden. Cuando no tengo la certeza de si la otra persona sabe euskera, pronuncio las primeras palabras en euskera y, si la otra persona lo entiende, continúo hablando en la misma lengua. Aunque me contesten en castellano, estoy dispuesto a seguir hablando en euskera si me entienden”.



Belarriprest: “decidiré en función de mis capacidades y posibilidades cuándo y con quién hablar en euskera. No utilizaré siempre el euskera con tod@s l@s que lo entienden, pero explícitamente, pediré que hable conmigo en euskera a todo el que lo sepa”.

UN PASO MÁS: DEL COMPROMISO INDIVIDUAL AL COLECTIVO

Las personas asumirán el compromiso como Ahobizi y Belarriprest. Pero este año se quiere pasar de la responsabilidad individual a la responsabilidad colectiva. Para ello se han creado los ARIGUNES.



ARIGUNES: Los Arigunes son un espacio para hablar tranquilamente en euskera. En ellos se asegura la posibilidad de usar el euskera, ya sea entre los miembros del grupo o en el servicio de atención al cliente. Muchos participantes harán el ejercicio en grupo en todo tipo de empresas, asociaciones e instituciones públicas. Estos espacios estarán identificados con un objeto llamativo.

¡QUIERO PARTICIPAR EN EUSKARALDIA!

Para ello tienes que dar tu nombre en la página web izenematea.euskaraldia.eus.

¿QUÉ HAGO SI TODAVIA NO SÉ SUFICIENTE EUSKERA COMO PARA ENTENDER UNA CONVERSACIÓN SENCILLA?

- Sabes más euskera de lo que crees. Utiliza lo que sepas, por poco que sea.
- Eres imprescindible en la normalización del uso del euskera. Observa los hábitos lingüísticos de tu entorno, seguro que puedes mejorar la comunicación con tus familiares, amig@s o compañer@s de trabajo.
- Toma un papel activo en defensa y promoción de la lengua.
- Te esperamos en la siguiente edición.

ما هو الايوسكارالديا؟

إيوسكارالديا هو تمرين جماعي اجتماعي لزيادة استعمال الايوسكيرا بين الساكنة. لقد اقترحت أوسكارالديا من 20 نونبر إلى 4 دجمبر من هذا العام، التحدث أكثر بالايوسكيرا مع المزيد من الأشخاص وفي مناسبات أكثر. يمكن أن يشارك في هذه النسخة جميع السكان الذين تزيد أعمارهم عن 16 عاماً والقادرين على فهم الايوسكيرا.

يظل الهدف الرئيسي للإيوسكارالديا هو نفسه كما في النسخة السابقة: مساعدة المواطنين الذين يرغبون في الماضي قدماً إلى الأمام مع الايوسكيرا ؛ الانتقال من الدعم إلى الفعل.

من سيشترك؟

سيشارك الأشخاص الذين تزيد أعمارهم عن 16 عاماً والذين يرغبون في اتخاذ خطوة أخرى في استعمال الايوسكيرا. نظراً لأكونه تمرين عملي، يجب أن يكونوا قادرين على فهم الايوسكيرا ، و اعتماداً على كيفية إجراء النشاط، سيختارون بين دورين سيتم تحديدهما بواسطة شارة. **أوبيسي:** "أتواصل دائماً بالايوسكيرا مع أولئك الأشخاص الذين يفهمونها. عندما لا أكون متأكداً أن الشخص الآخر يعرف الايوسكيرا، أنطق الكلمات الأولى بالايوسكيرا ، وإذا فهمها الشخص الآخر، أستمر في التحدث بنفس اللغة. حتى لو أجابوني باللغة الإسبانية، فأنا مستعد لمواصلة التحدث بالايوسكيرا إذا فهموني".

بيلايريرست: "سأقرر بناءً على قدراتي وإمكانياتي متى و مع من أتحادث باللغة بالايوسكيرا. لن أستعمل الايوسكيرا دائماً مع كل من يفهمها، لكنني سأطلب صراحةً أن يتحدث معي بالايوسكيرا كل من يعرفها".

خطوة أخرى: من الالتزام الفردي إلى الالتزام الجماعي

سوف يلتزم الأشخاص مثل أوبيسي و بيلايريرست. لكن هذه السنة نريد الانتقال من المسؤولية الفردية إلى المسؤولية الجماعية. لهذا تم إنشاء لوس أريغونيس.

أريغونيس: لوس أريغونيس هي مساحة للتحدث بالايوسكيرا بهدوء. فيها تضمن إمكانية استعمال الايوسكيرا، سواء بين أعضاء المجموعة أو في مصلحة استقبال الزبون. سيقوم العديد من المشاركين بالتمرين في مجموعات في جميع أنواع الشركات والجمعيات والمؤسسات العمومية. سيتم تحديد هذه المساحات بشارة ملفنة للنتباه.

هل تريد المشاركة في إيوسكارالديا!

لهذا عليك تسجيل اسمك على الموقع الإلكتروني izenematea.euskaraldia.eus.

ماذا أفعل إذا كنت لا زلت لا أعرف ما يكفي من الإيوسكيرا لفهم محادثة بسيطة؟

- أنت تعرف الايوسكيرا أكثر مما تعتقد. استخدم ما تعرفه مهما كان ضئيلاً.
- أنت أساسي في تطبيع استخدام الايوسكيرا. راقب العادات اللغوية لمحيطك، بالتأكد يمكنك تحسين التواصل مع عائلتك أو أصدقائك أو زملائك في العمل.
- قم بدور فعال في الدفاع عن اللغة وتعزيزها.
- ننتظرك في النسخة القادمة.

O QUE É EUSKARALDIA?

Euskaraldia é um exercício social coletivo para aumentar o uso de Euskera entre a população. De 20 de novembro a 4 de dezembro deste ano, Euskaraldia propôs falar mais basco, com mais gente e em mais ocasiões. Pode participar nesta edição toda a população com mais de 16 anos que seja capaz de compreender o basco.

O principal objetivo do Euskaraldia permanece, e o mesmo da edição anterior: ajudar os cidadãos que querem dar um passo adiante com o basco; passar do suporte ou do apoio à ação.

QUEM PARTICIPARÁ?

Participarão pessoas com mais de 16 anos que queiram dar mais um passo no uso do basco. Por se tratar de um exercício prático, devem ser capazes de compreender o basco e, dependendo da forma como o exercício é realizado, escolherão entre duas funções que serão identificadas por um distintivo.



Ahobizi: “Sempre comunico em basco com quem entende. Quando não tenho certeza se a outra pessoa conhece basco, pronuncio as primeiras palavras em basco e, se a outra pessoa entende, continuo a falar a mesma língua. Mesmo que me respondam em espanhol, estou disposto a continuar falando basco se me compreenderem”.



Belarriprest: “Decidirei com base nas minhas capacidades e possibilidades quando e com quem falar em basco. Nem sempre vou usar o basco com todos/as os/as que o compreendem, mas vou pedir explicitamente a todos os que o conhecem que falem comigo em basco”

MAIS UM PASSO: DO COMPROMISSO INDIVIDUAL AO COLETIVO

As Pessoas farão o compromisso como Ahobizi e Belarriprest. Mas, este ano, queremos passar da responsabilidade individual para a responsabilidade coletiva. Para isso, foram criados os ARIGUNES.



ARIGUNES: Os Arigunes são um espaço para falar basco em voz baixa. Eles garantem a possibilidade de usar o basco, seja entre os membros do grupo ou no atendimento ao cliente. Muitos participantes farão o exercício em grupos em todos os tipos de empresas, associações e instituições públicas. Esses espaços serão identificados com um objeto marcante ou chamativo.

QUERO PARTICIPAR DO EUSKARALDIA!

Para tal, deverá indicar o seu nome no site izenematea.euskaraldia.eus.

O QUE FAÇO SE AINDA NÃO SEI O BASQUE PARA COMPREENDER UMA CONVERSA SIMPLES?

- Você sabe mais basco do que pensa. Use o que você sabe, por pouco que seja.
- Você é essencial na normalização do uso do basco. Observe os hábitos linguísticos do seu ambiente, com certeza você pode melhorar a comunicação com sua família, amigos/as ou colegas de trabalho.
- Ter um papel ativo na defesa e promoção da língua.
- Esperamos por você na próxima edição.

CE ESTE EUSKARALDIA?

Euskaldia este o activitate socială colectivă care are ca scop încurajarea folosirii limbii basce în rândul populației. Anul acesta, între 20 noiembrie și 4 decembrie, Euskaldia lansează propunerea ca limba bască să fie vorbită mai mult, de către mai multe persoane și mai des. Orice persoană cu vârsta de peste 16 ani și care este capabilă de a înțelege limba bască, va putea participa în cadrul acestei ediții.

Obiectivul principal al acestei inițiative este același ca și anul trecut, și anume: de a le ajuta pe acele persoane care doresc să avanseze în ceea ce privește învățarea limbii basce; de a trece de la sprijin la acțiune.

CINE POATE PARTICIPA?

Toate persoanele cu vârsta de peste 16 ani care doresc să avanseze în ceea ce privește învățarea limbii basce. Fiind vorba de un exercițiu practic, participanții trebuie să fie în stare să înțeleagă limba bască și, în funcție de cum se va desfășura activitatea, va fi necesar ca aceștia să aleagă două roluri care pot fi identificate prin intermediul a două insigne.



Ahobizi: “Întotdeauna vorbesc în bască cu acele persoane care înțeleg această limbă și, dacă cealaltă persoană mă înțelege, eu vorbesc în continuare în bască. Chiar dacă lumea îmi răspunde în spaniolă, eu sunt dispus să vorbesc în continuare în această limbă atât timp cât ceilalți mă înțeleg.”



Belarriprest: “Voi lua hotărârea de a vorbi în limba bască în funcție de capacitatea și de posibilitățile mele și, de asemenea, voi decide cu cine pot vorbi în bască. Nu voi vorbi în bască cu oricine înțelege această limbă, însă, îi voi cere în mod expres oricărei persoane care știe să vorbească limba bască să o folosească cu mine.”

UN PAS ÎNAINTE: DE LA ANGAJAMENTUL INDIVIDUAL LA CEL COLECTIV

Participanții își vor lua angajamentul în rolul de Ahobizi și Belarriprest. Însa anul acesta, intenția este de a da încă un pas, și anume, de a trece de la responsabilitatea individuală la responsabilitatea colectivă. Din acest motiv, s-au creat zonele ARIGUNE.



ZONELE ARIGUNE: Zonele Arigune sunt spații în care participanții pot vorbi liniștiți în limba bască, spații în care este asigurată posibilitatea de a vorbi în această limbă, fie că este vorba despre membrii aceluiasi grup sau în cadrul serviciului de informații și relații cu clienții. Mulți dintre participanți vor lua parte la această activitate în grup și în cadrul oricărui tip de întreprinderi, asociații și instituții publice. Aceste zone vor fi ușor de identificat prin intermediul unor obiecte ușor de recunoscut.

VREAU ȘI EU SĂ PARTICIP LA EUSKARALDIA!

Pentru aceasta, va trebui să te înscrii pe pagina web izenaematea.euskaldia.eus.

CE POT FACE DACĂ NU MĂ DESCURC DESTUL DE BINE ÎN BASCĂ PENTRU A ÎNȚELEGE O CONVERSAȚIE SIMPLĂ?

- Știi mai multă bască decât crezi. Folosește ceea ce știi, indiferent de cât de puțin este.
- Ești indispensabil pentru standardizarea folosirii limbii basce. Fii atent la obiceiurile lingvistice ale persoanelor din jurul tău, cu siguranță vei putea să-ți îmbunătățești comunicarea cu membrii familiei tale, cu prietenii sau colegii de muncă.
- Participă în mod activ la apărarea și promovarea acestei limbi.
- Te așteptăm și la următoarea ediție.



EUSKARALDIA

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

AHOBIZI edo **BELARRIPREST?**

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Euskaraldiak irauten duen 15 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al nago?

**BAI,
BETI**

- Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- Elkarriketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.

NI



AHOBIZI

**BAI,
NAHI ETA AHAL
DUDANETAN**

- Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.

NI



BELARRIPREST



www.euskaraldia.eus

Eman izena Euskaraldian!

izenematea.euskaraldia.eus



Parte hartzaileak eta sustatzaileak

ABALTZISKETA, ADUNA, ALBIZTUR, ALEGIA, ALKIZA, ALTZO, AMASA-VILLABONA,
AMEZKETA, ANOETA, ASTEASU, BALIARRAIN, BERASTEGI, BERROBI,
BIDANIA-GOITZ, ELDUAIN, GAZTELU, IBARRA, IKAZTEGIETA, IRURA,
LEABURU-TXARAMA, LIZARTZA, ORENDAIN, TOLOSA, ZIZURKIL

